



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko martxoaren 23a

37. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarritzko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan. Osasun Batzordeak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-6900 errepidea aldatzeko proiektua diseinatu eta gauzatu dezan. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsia (4. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan familia guztiak baldintza bere-tan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz. Hezkuntza Batzordeak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izenekoak sortzearen alde. Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetzea (5. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, AstraZeneca txertoa aldi batez emateari uzteari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako haur guztien pediatriako arretari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak ezartzearen ondorio ekonomiko eta sozialei buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Corona Test Nafarroa eta Radar COVID aplikazioei buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, hurbileko merkataritzari buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (8. or.).
- Galdera, COVID-19aren aurkako txertaketa-planari buruzkoa. Ana Isabel Ansa Ascunce andreak egin du (9. or.).

- Galdera, hondakinak tratatzeko Imarkoingo plantari buruzkoa. Ainhoa Aznárez Igarza andreak egin du (9. or.).
- Galdera, COVID-19aren genomaren sekuentziazioari buruzkoa. Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, klima-aldaketari buruzko lege-aurreproiektua bideragarri egite aldera etxebizitzaren erabiltzaileei eman beharreko laguntzei buruzkoa. José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, energia berriztagarriko parkeak garatzeari dagokionez Next Generation funtsetatik heldu diren erroketari buruzkoa. Carlos Pérez-Nievas jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, N-121-A errepideko obrei buruzkoa. Isabel Olave Ballarena andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 30eko 147/2016 Foru Aginduari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, heriotza duinerako eskubidea gauzatzeko aldera eskakizunak betetzeari buruzkoa. María Luisa de Simón Caballero andreak egin du (13. or.).
- Galdera, enpresei laguntza zuzenak emateko Gobernu zentralak 7.000 milioi euro gordeko dituela iragarri ostean, eginen diren zuzemenei buruzkoa. Uxue Barkos Berruezo andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Etxabakoitzen AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala kudeatzeko eta garatzeko partzuergoaren bilera bat deitzeari buruzkoa. Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Eutanasiaren Legea onesteari eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, hurrengo errentaren kanpainan gurasoei PFEZa itzultzeari buruzkoa. Ramón Alzórriz Goñi jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Radar COVID aplikazioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).
- Galdera, Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).
- Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta egindako balorazioari buruzkoa. Galdera erretiratzea (16. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko martxoaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da paziente diabetikoen osasun arreta hobetu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Osasun Departamentua premiatzen du:

1. Diabeteserako diziplina anitzeko unitate funtzional bat sor dezan Nafarroako Ospitalegunean.

2. Nafarroako Osasun Sistemaren hezkuntza diabetologiko egokia eman diezaien 1 eta 2 motako diabetesa duten pazienteei.

3. Kalitatezko material suntsikorra ziurta dezan paziente diabetikoentzat eta glukosa-sentsoreak sar ditzan 1 eta 2 motako diabetikoen prestazioen artean.

4. Oinarrizko Osasun Laguntzako profesionalak diabeteserako teknologia berrietan eta tratamenduetan trebatu ditzan, hala nola intsulinaz hornitzeko gailuak eta glukosa-sentsoreak.

5. Gehienez ere bi hilabeteko epean jarduketa plan bat presta dezan pandemiak 2 motako diabetes mellitusa duten pertsonen kontrolean eta jarraipenean izan duen eragina arintzeko”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan.

OSASUN BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordeak, 2021eko martxoaren 10ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun barruti berri bat sor dezan eta hirugarren osasun etxe bat eraiki dezan Tuterako Lourdes auzoan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Tuterako osasun eskualdea berrantola dezan, halako moduan non hobetu egingen baita oinarrizko osasun laguntzako zentroetarako irisgarritasuna, Erriberako hiriburuan Nafarroa Ekialdeko eta Nafarroa Mendebaldeko osasun etxeak eraiki zirenetik izandako populazioaren igoerara egokitzeko.

2. Tuteran hirugarren osasun etxe bat sordezan, Lourdesko auzoan.

3. Tuterako Lourdes auzoko osasun etxe berriaren proiektua egin dezan eta haren obrak 2021ean har ditzan.

4. Tutera Mendebaldeko osasun etxea handitzeko proiektua egin eta obrak 2021ean zehar has ditzan”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-6900 errepidea aldatzeko proiektua diseinatu eta gauzatu dezan.

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2021eko martxoaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-6900 errepidea aldatzeko proiektua diseinatu eta gauzatu dezan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. N-113 eta Fitero arteko zatian N-6900 errepidea aldatzeko proiektua urgentziaz diseinatu eta gauzatu dezan, bideko segurtasuna hobetzeko.

2. Proiektuan Alhama ibaiaren gaineko zubia hobetzea sar dezan”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2021eko martxoaren 16an egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berma dezan familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea titulartasun publikoko haur-eskoletan, desberdintasun-egoerak saihestuz”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren eta eskura dituen baliabide guztiak jar ditzan eta inplikaturiko alde guztiekin hitz egin dezan, titulartasun publikoko haur-eskoletan matrikulaturiko haurrak dituzten familia guztiak baldintza beretan matrikulatu ahal izatea bermatzeko eta desberdintasun-egoerak saihesteko”.

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premiatzen dira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izenekoa sortzearen alde.

UNIBERTSITATEKO, BERRIKUNTZAKO ETA ERALDAKETA DIGITALEKO BATZORDEAN IZAPI-DETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 15ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Iñaki Iriarte López jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa premia-tzen baitira batera lan egin dezaten Lehen Hezkuntzako Irakasletza graduan “Nafarroako euskalkien aipamena” izenekoa sortzearen alde,

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Batzordean izapidetu dadin. Mozioa 2021eko otsailaren 26ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/MOC-00037).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, AstraZeneca txertoa aldi batez emateari uzteari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, AstraZeneca txertoa aldi batez emateari uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Patricia Fanlo Mateo andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Osasuneko kontseilariak Osasun Batzordean ahoz erantzun diezaion:

Osasun Ministerioak Osasuneko Lurraldearteko Kontseiluan iragarri zuen AstraZeneca farmazia-enpresak COVID-19aren aurka ekoiztutako txertoa emateari utziko diola, Europako Medikamentuaren Agentziak bere iritzia eman arte. Hori horrela,

AstraZenecaren txertoa aldi batez emateari uzteak zer-nolako eragina izanen du Nafarroako Foru Komunitatearen txertaketa-egutegian eta -planean?

Iruñean, 2021eko martxoaren 15ean

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

Galdera, Nafarroako haur guztien pediatriako arretari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako haur guztien pediatriako arretari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten Nafarroako haur guztiei pediatriako arreta bermatzeko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak ezartzearen ondorio ekonomiko eta sozialei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako garraio-enpresei bidesariak ezartzearen ondorio ekonomiko eta sozialei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Chivite andrea, ohartzen al zara zer-nolako ondorio ekonomiko eta sozialak izanen dituen Nafarroako garraio-enpresentzat Nafarroako zenbait errepidetan bidesariak ezartzeak?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, Corona Test Nafarroa eta Radar COVID aplikazioei buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Corona Test Nafarroa eta Radar COVID aplikazioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Corona Test Nafarroa eta Radar COVID aplikazioei dagokienez?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

Galdera, hurbileko merkataritzari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako galdera, hurbileko merkataritzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko parlamentari Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion.

Bizi dugun krisi ekonomiko eta sanitarioa eragin latza izaten ari da merkataritzaren sektorean; bereziki, hurbileko merkataritzan.

Nafarroako saltokien % 72,10ek pairatu dute jaitsiera salmentetan urtebete honetan zehar.

Merkataritzan gehien kaltetu den sektorea ekipamendu pertsonalarena izan da: arropa, zapatak, osagaiak, bitxiak, imitaziozko bitxiak, optikak, eta abar.

Etorkizuna ez da batere itxaropentsua, sektoreak aurreikusten baitu Nafarroako saltokien % 15,18 itxiko direla heldu diren bederatzi hilabeteotan.

Sektore horrek 21.600 pertsonari baino gehiagori ematen dienez lana, uste dugu hurbileko saltokiei laguntzeko jarduketara plan bat ezarri beharra dagoela ezinbestez –bereziki, ekipamendu pertsonalaren sektoreari: arropa, zapatak, osagaiak, bitxiak, imitaziozko bitxiak, optikak, eta abar–, sektorearen bideragarritasuna bermatzeko eta kalitatezko enplegu egonkorra babesteko.

Galdera:

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuak zer egingen du hurbileko merkataritzaren bideragarritasuna –bereziki, ekipamendu pertsonalaren sektorearena: arropa, zapatak, osagaiak, bitxiak, imitaziozko bitxiak, optikak, eta abar– bermatzeko eta kalitatezko enplegu egonkorra babesteko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Marisa De Simón Caballero

Galdera, COVID-19aren aurkako txertaketa-planari buruzkoa.

ANA ISABEL ANSA ASCUNCE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Isabel Ansa Ascunce andreak aurkeztutako galdera, COVID-19aren aurkako txertaketa-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Ansa Ascunce andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

COVID-19aren aurkako txertaketaren lehen hiruhilekoa bukatzeaz eta bigarrena hastear dagoen honetan, Osasun Departamentuak txertaketaren bilakaeraz egiten duen balorazioa ezagutu nahi dugu.

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dugu:

Osasun Departamentuak zer balorazio egiten du COVID-19aren aurkako txertaketaren lehen hiruhilekoaz eta zer aldaketa proposatzen du bigarren hiruhilekoari begira?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ana Ansa Ascunce

Galdera, hondakinak tratatzeko Imarkoango plantari buruzkoa.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztutako galdera, hondakinak tratatzeko Imarkoango plantari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarzak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingu-rumeneko kontseilariak martxoaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zein da hondakinak tratatzeko Imarkoango plantari buruz Gobernuak duen iritzia?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, COVID-19aren genomaren sekuentziazioari buruzkoa.

ANTONIO JAVIER LECUMBERRI URABAYEN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Antonio Javier Lecumberri Urabayen jaunak aurkeztutako galdera, COVID-19aren genomaren sekuentziazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Javier Lecumberri Urabayenek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Nafarroako Ospitaleguneak eta NASERTIC enpresa publikoak COVID-19aren sekuentziazioa hasi dira egiten, gaixoen laginak baliatuta.

Birusaren genomaren sekuentziazio-prozesu hori funtsezkoa da COVID-19ak izan ditzakeen aldagaiei buruzko informaziorik al bait handiena lortzeko, orain nahiz etorkizunean.

COVID-19aren genomaren sekuentziazioa lortuta, zertarako balio du, zer onura dakar eta zer tokitan geratzen dira Nafarroako Foru Komunitatea eta Nafarroako Sekuentziazio Masiboko Zentroa?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Javier Lecumberri Urabayen

Galdera, klima-aldaketari buruzko lege-aurreproiektua bideragarri egite aldera etxebizitzaren erabiltzaileei eman beharreko laguntzei buruzkoa.

JOSÉ LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, klima-aldaketari buruzko lege-aurreproiektua bideragarri egite aldera etxebizitzaren erabiltzaileei eman beharreko laguntzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estrategikoetako kontseilari José María Aierdik Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zein da Nafarroako Gobernuak etxebizitzaren erabiltzaileentzako laguntzetarako bideratu beharreko zenbatekoaren kalkulua, baldin eta klima-aldaketari buruz Nafarroako Gobernuak onetsitako aurreproiektua bideragarri egiten saiatze aldera Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin hartutako konpromisoa bete nahi bada?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, energia berriztagarriko parkeak garatzeari dagokionez Next Generation funtsetatik heldu diren erronkei buruzkoa.

CARLOS PÉREZ-NIEVAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Pérez-Nievas jaunak aurkeztutako galdera, energia berriztagarriko parkeak garatzeari dagokionez Next Generation funtsetatik heldu diren erronkei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nola ezkontzen dira energia berriztagarriko parkeak garatzearen aurka dauden bazkideak eta Next Generation funtsetatik heldu diren erronkak?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Pérez-Nievas López de Goicoechea

Galdera, N-121-A errepideko obrei buruzkoa.

ISABEL OLAVE BALLARENA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako galdera, N-121-A errepideko obrei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Isabel Olave Ballarena andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lurralde Kohesiorako kontseilari Bernardo Cirizak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu honek zer jarduketa aurreikusten du bide-segurtasunaren arloan N-121-A errepideko obrak egiten diren bitarteko?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Isabel Olave Ballarena

Galdera, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 30eko 147/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 30eko 147/2016 Foru Aginduari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioaren ele-dun Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegui jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuak 147/2016 Foru Aginduaren irakurketa murriztailea egin du, halako moduan non Castejongo Dos de Mayo HLHIPak Ingeleseaz Ikasteko Programan jarraitu beharko baitu 8 ikasturte gehiago, erabat desagertu arte, ezarri gabe zegoen ikasturtetara luzatuta. Zergatik?

Iruñean, 2021eko martxoaren 17an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan eta 2021eko martxoaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak uztailaren 23an emandako 64/2019 Erabakiaren bidez ebatzi zen "Urbanizazio-proiektuaren urbanizazio-obraren lehen faseko obrak kontratatzeo baldintzak arautzen dituen agiria" dela-eta kontratazio publikoaren arloari buruz aurkeztutako erreklamazio berezia; erabaki horren bidez, Baztango Aroztegia Jauregiaren inguruan sustatutako turismo-, hotel-, kirol- eta egoitza-eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Bartzordeak onetsitako agiri hori baliogabetu zen, esleipen-prozedurarekin jarraitu ezin zela deklaratu baitzuen. Erabakia Administrazioarekiko Auzien Salak berretsi zuen 2020ko ekainaren 15eko 137/2020 Epaiaren bidez, ezetsi egin baitzuen errekurtsioa. Nafarroako Gobernuak edo Nasuvinsak –konpentsazio batzorde horren kidea den aldetik– jakin al dakite agiria aldatzeko erabakirik hartu ote den Nafarroako Kontratuen Auzitegiaren erabaki horretara egokitzeko, edo urbanizazioaren esleipenaren lehen faseko obraren esleipenik egin ote den?

Iruñean, 2021eko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, heriotza duinerako eskubidea gauzatze aldera eskakizunak betetzeari buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa de Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, heriotza duinerako eskubidea gauzatze aldera eskakizunak betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko Marisa de Simón Caballero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak 2021eko martxoaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Kongresuko Osoko Bilkurak eutanasia arautzen duen legea onetsi du. Eutanasiaren despenalizazioa eta heriotza duina izateko eskubidea errealitate bat izanen da Espainiako estatuan heldu den uztaitetik aitzina.

Bitartean, autonomia erkidegoetako Berme eta Ebaluazio batzordeak eratu beharko dira, zeinak hiltzeko laguntzaren prestazioaren aplikazioa egiaztatuko baitute.

Arauk jasotzen du, nola ez, prestazio honetan zuzenean inplikaturik dauden osasun arloko profesionalen kontzientzia eragozpena baliatu ahal izanen dutela, alde aurretik idatzita jasota uzten badute.

Nafarroako Gobernuak zer ibilbide-orri aurreikusten du, arauak ematen duen hiru hilabeteko epean betetzeko autonomia erkidegoei ezarritako betekizunak, Nafarroako Foru Komunitatean heriotza duinerako eskubidea gauzatze aldera, eskubide hori indarrean dagoenean?

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: María Luisa de Simón Caballero

Galdera, enpresei laguntza zuzenak emateko Gobernu zentralak 7.000 milioi euro gordeko dituela iragarri ostean, eginen diren zuzemenei buruzkoa.

UXUE BARKOS BERRUEZO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Uxue Barkos Berruezo andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, enpresei laguntza zuzenak emateko Gobernu zentralak 7.000 milioi euro gordeko dituela iragarri ostean, eginen diren zuzemenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioaren eledun Uxue Barkos Berruezo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak heldu den martxoaren 25eko Legebiltzarraren Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gobernu zentralak iragarri du 7.000 milioi euro gordeko dituela enpresei laguntza zuzenak emateko, eta diru horren kudeaketaz autonomia erki-degoetako gobernuak arduratuko direla. Zer zuzemen egin dira Nafarroari dagokion dirua eta diru horren banaketa direla-eta?

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Uxue Barkos Berruezo

Galdera, Etxabakoitzen AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala kudeatzeko eta garatzeko partzuergoaren bilera bat deitzeari buruzkoa.

JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Etxabakoitzen AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala kudeatzeko eta garatzeko partzuergoaren bilera bat deitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Navarra Suma talde parlamentarioaren eledun Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Oraindik ez da deitu Etxabakoitzen AHTaren Udalez gaindiko Plan Sektoriala kudeatzeko eta garatzeko partzuergoaren bilerarik –hartara, azpiegitura hori bultzatuko litzateke–. Zergatik?

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Javier Esparza Abaurrea

Galdera, Eutanasiaren Legea onesteari eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari buruzkoa.

MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Eutanasiaren Legea onesteari eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentariaren elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak martxoaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafar herritarrei zer ekarriko die Eutanasiaren Legea onesteak eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzeak?

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

Galdera, hurrengo errentaren kanpainan gurasoei PFEZa itzultzeari buruzkoa.

RAMÓN ALZÓRRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzórriz Goñi jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, hurrengo errentaren kanpainan gurasoei PFEZa itzultzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioaren eledun Ramón Alzórriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamendua ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak martxoaren 25eko Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko.

Nafarroako Gobernuak nola gauzatu nahi du errentaren kanpainan gurasoei itzuli beharreko PFEZa?

Iruñean, 2021eko martxoaren 21ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzórriz Goñi

Galdera, Radar COVID aplikazioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ángel Ana Echegaray jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Radar COVID aplikazioari buruzkoa zen, eta 2021eko urtarrilaren 26ko 8.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00027).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ana Echegaray jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera Corona Test Nafarroa aplikazioari buruzkoa zen, eta 2021eko otsailaren 19ko 23.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00090).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Galdera, “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta egindako balorazioari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2021eko martxoaren 22an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera erretiratu izanaz. Galdera “Terrorismo ezezaguna. Eskuin muturrak Nafarroan egindako atentatu terroristak (1975-1985)” izeneko txostena dela-eta

egindako balorazioari buruzkoa zen, eta 2021eko martxoaren 5eko 32. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (10-21/POR-00117).

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2021eko martxoaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias